



NI BIODIBERTSITATEA NAIZ.

Ni biodibertsitatea naiz, zu biodibertsitatea zara.

Biodibertsitatea munduan dagoen bizi guztia da: Lurrean bizi diren izaki, mikroorganismo, landare, animalia, habitat eta ekosistemen aniztasun eta aldakortasun izugarria.

Begiratu zure inguruan; ikusten duzun guztia biodibertsitatea da. Zu zeu biodibertsitatea zara; bakarra egiten zaituzten ezaugarri batzuk dituzu, gainerako izaki bizidun guztiek bezalaxe. Espezie bereko banakoen portaera desberdinak biodibertsitatea dira. Denak gara desberdinak, denak gara bakarrak, denak gara biodibertsitatea.

Biodibertsitateak ahalbidetzen digu egunero jatea, edatea, arropak janztea, gaixotasunak prebenitzea eta sendatzea, paisaiez gozatzea, etab. Biodibertsitatearen menpe gaude, eta ez bakarrik bizirik irauteko; bizi-kalitate hobea edukitzeko ere bai. Ezinbestekoa da biodibertsitateari eustea; zaindu ezean, etorkizuneko belaunaldien ondarea asko pobretuko da.

MEHATXUAK.

Biodibertsitatea osatzen duten habitat eta espezieentzako mehatxu nagusiak honako hauek dira:

- hirigintzaren hazkuntza, azpiegituren eskaera gero eta handiagoarekin lotuta;
- nekazaritzako eta basogintzako ekoizpen-sistemen areagotzea;
- itsasoko baliabideen gehiegizko ustiapena;
- espezie exotiko inbaditzaileen hedapena;
- uraren, airearen eta luraren kutsadura.


NIRE KONPROMISOAK BIODIBERTSITATEAREN ALDE.

Biodibertsitateari eusten lagunduko dioten banako zein taldeko konpromisoak batzeko asmoz, "Ni Biodibertsitatea naiz" ekimena sortu da. Ekimen horren xedea biodibertsitateari eustek duen garrantzia ulerraraztea da, konpromisoak batzea eta jokabide jakinak aldatzea. Konpromisorik txikienak ere bere garrantzia du. Denak batuta asko egin daiteke.

Sar zaitetz helbide honetan:

www.torremadariaga.org/yosoybiodiversidad

Eta **hartu zeure konpromisoa**. Garrantzitsua da.



GINARRIZKO A HOLKU BATZUK, BIODIBERTSITATEARI EUSTEN ETA ZURE INGURUKOEN BIZI-KALITATEA HOBETZEN LAGUNTZEKO.

URA:



URA ZENTZUZ ERABILI:

Ura baliabide urria, mugatua eta ordezkazina da. Gainera bere kontsumoa gutxituz, hondakin-urak murriztuko ditugu, eta beraz, diru eta energia gutxiago gastatuko dugu horiek tratatzen. Konpon itzazu zure etxeko ur-ihesak, eta jarri zurrusta-haustekoak txorrotetan, edota ur-dosifikatzaileak tangetan. Dutzatu zaitetz bainatu beharrean, eta itxi txorrota hortzak garbitzen ari zaren bitartean.



BOTILAK TXORROTA AZPIAN BETE:

Botilako ura oso aukera osasungarria da freskagarrien aldean, baina plastikozko botilek kalte egiten diote ingurumenari. Berrerabil itzazu botilak, eta bete itzazu txorrota azpian.



LANDAREAK UREZTATZEKO EURI URA ERABILI:

Landareak euri-uraz urezta itzazu, iluntzean edo goizean.



KONTUZ XABOIAREKIN:

Bakterio-kontrako xaboi gehienak ez dira xaboi arrunta baino hobeak. Produktu kimikoak kaltegarriak izan daitezke osasunarentzat, eta ez dira erraz desagertzen; lakuak, ibaiak eta iturriak kutsatzen dituzte. Erabil itzazu xaboi biodegradagarriak.



ELIKADURA:




KONTSUMITU BERTAKO ETA URTE SASOIKO ELIKAGAIK:

Elikagai freskoak hobeak dira osasunarentzat, eta zapoetsuagoak ere bai. Gainera, garraioak dakartzan kalteak saihestuko dituzu, eta bertako nekazari-komunitateei lagunduko diezu, lurra zainduz, elikagai horien ekoizpen-zikloa indartuz eta bertako ekonomia aberastuz.



AUKERATU ELIKAGAI ORGANIKOAK:

Modu organikoan ekoiztutako elikagaiak aukeratuz gero, gai kimiko sintetikoek ingurumenean eragiten dituzten kalteak murrizten lagunduko duzu, eta produktu horien eskaria handitzen ere bai.



EROS ITZAZU SOLTEKO PRODUKTUAK:

Eros itzazu enbalaje gutxi duten produktuak, eta ahal bada, soltekoak. Horrek onura handia dakar, bai zuretzat, merkeago irtengo zaizulako, eta baita ingurumenarentzat ere. Ontziak egiteko erabiltzen den papera erdira murriztuz gero, zuhaitz mordoak salbatuko genituzke.



IZAN ZAITEZ BEGETARIANO ASTEAN BEHIN EDO GEHIAGOTAN

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen arabera, abeltzaintza da ingurumenak dituen arazo larrien erantzule nagusienetako bat: munduaren beroketarena, lurra eta airearen narriadurarena, uraren kutsadurarena, bai eta biodibertsitate-galerarena ere. Gure haragi-kontsumoa gutxitu behar dugu, eta ganadua kudeatzeko modu iraunkorragoak bultzatu.





ZEUK EGIN ZEURE OGIA ETA JOGURTA:

Horrek dirua aurrezten lagunduko dizu, eta gainera, kalitate handiko ogia eta jogurtaz gozatuko duzu.



ARRAINA ETA ITSASKIAK ZENTZUZ AUKERATU:

Arrain eta itsaski guztiak ez dira berdinak. Espezie asko eta asko gehiegi arrantzatzen dira, eta arrain-haztegi batzuek kutsadura sortzen dute, edota, paradoxikoki, basa-arrainen irinaz elikatzen dituzte beren arrainak.



EZ BOTA OTORDUETAKO HONDARRAK:

Ez itzazu bota otorduetako hondarrak; irudimen pixka bat izanez gero, plater gozoak presta ditzakezu apur horiekin.




EMAN DENBORA GEHIAGO SUKALDEAN:

Produktu freskoekin egindako platerak askoz ere osasungarriagoak dira. Gainera, energia gutxi kontsumitzen dute plater aurrekozinatuen aldean.




ENERGIA:




MURRIZTU ZURE "CO₂ ARRASTOA":

Energia aurreztuz gero (etxean, lanean, eskolan, gure joan-etorrietan, etab.), berotegi-efektuko gas gutxiago igorriko ditugu. Neurtu atmosferan uzten duzun CO₂-arrastoa www.stopco2euskadi.net helbidean. Arrasto hori nabarmen txikitzeko moduak ere aurkituko dituzu bertan.



ARGI NATURALA APROBETXA EZAZU:

Ahal duzunean, argi elektrikoaren ordez, adibidez, lanak egiteko erabiltzen duzun mahaia leihoetatik hurbil jarri. Etxeko hormak kolore argiez margotzea, pertsianak igotzea eta gortinak zabaltzea ere oso lagungarria da argi elektrikoaren beharra murrizteko.



ERABILI ENERGIA BERDEAK:

Saia zaitetz etxean kontsumitzen duzun energia iturri berriztagarrietatik ateratzen.



MURRIZTU AUTOAREN ERABILERA:

Erabili garraio publikoa, edo parteka ezazu autoa toki berera doazen beste pertsona batzuekin. Ahal duzunean, zoaz oinez edo bizikletan. Autoa erabili behar baduzu, gida ezazu modu iraunkorrean, martxa luzeak erabiliz.



JAITSI GRADU PARE BAT BEROKUNTZAREN TEMPERATURA:

Neguan berokuntzaren termostatoa bi gradu jaitsi eta udan aire egokituarena bi gradu igoz gero, energia-kantitate izugarria aurreztuko duzu. Eta askoz ere gehiago, etxean ez zaudenean termostatoa itzaltzen baduzu.






DESKONEKTATU TRESNA ELEKTRIKOAK!:

Hainbat tresnen kargagailuek (telefono mugikorra, iPod-a, kamera digitala, mp3-a edo ordenagailuarenak, adibidez) energia-kantitate handiak kontsumi ditzakete, baita kargatzen ari ez direnean ere. Beraz, horiek deskonektatzea komeni da, eta ahal izanez gero eguzki-kargagailuak erabiltzea. "Stand by" moduan dauden tresna elektrikoek energia kontsumitzen jarraitzen dute, eta baita urrutiko kontrolaz itzalitakoek ere.




BILATU KONTSUMO ERAGINKORRAREN ETIKETA:

Aukera itzazu kontsumo eraginkorraren etiketa daramaten etxetresna elektrikoak (telebistak, hozkailuak, arropa-garbigailuak, aire egokitua, e.a.). Ahal baduzu, erabili A motako etxetresna elektrikoak.



ARROPA GARBIGAILUA ETA ONTZI GARBIGAILUA EZ ERABILI ERDI BETETA:

Erabil itzazu bete-beteta daudenean.



ARROPAK MODU ERAGINKORREAN GARBITU ETA LEHORTU:

Arropak garbitzeko behar den energiaren %90 inguru ura berotzeko erabiltzen da. Beraz, ur hotza erabiliz gero, energia asko aurreztu dezakegu. Etiketa ekologikoa daramaten arropa-garbigailuek garbigailu arruntek behar duten energia eta uraren erdia kontsumitzen dute. Horrez gain, arropak ohiko esekitokietan lehortzea komeni da.



ALDATU OHIKO BONBILAK:

Kontsumo baxuko bonbila berriek ohikoek baino elektrizitate askoz gutxiago behar dute. Haiek erabiliz, zure argi faktura txikiagoa izango da. Ez ahaztu bonbila horiek birziklatzea, hondatzen direnean.



HONDAKINEN MURRIZKETA:



PAPEREZKO POLTSAK ALA PLASTIKOZKOAK? EZ BATA, EZ BESTEA:

Plastikozko poltsak nonahi daude: zuhaitzen adarretan korapilatzen dira, eta gure ur-ibilguak buxatzen dituzte. Paperezko poltsak ere kaltegarriak dira ingurumenarentzat. Izan ere, zuhaitzetatik datoz eta beren ekoizpen-prozesuan energia asko kontsumitzen da. Hobe da telazko poltsa bat beti gurekin eramatea, plastiko edo paperezkoak erabili beharrean.



BIRZIKLATU ZURE HONDAKINAK:

Oso garrantzitsua da hondakinak bereiztea, horiek birziklatu ahal izateko: hondakin organikoak, papera eta kartoia, plastikoak eta ontziak, beira.



KONTUZ ERABILITAKO OLIOAREKIN, PILEKIN ETA SENDAGAIKIN:

Informa zaitez zure udaletxean pilen, erabilitako olioaren eta sendagaien bilketari buruz. Gai horiek guztiak toxikoak dira; ez itzazu edozein zakarretara bota, ezta ere harraskatik edo komunetik behera. Informa zaitez, halaber, bota nahi dituzun aparatu eta etxetresna elektrikoekin zer egin jakiteko.



EGIN EZAZU KONPOSTA:

Zakarretara botatzen ditugun gauzetako askorekin konposta egin dezakegu, eta gero, konpost hori etxeko landareak edo mendikoak ongarrizeko erabil daiteke.



HABITATA:



LANDATU BERTAKO LANDAREAK:

Bertako landareak oso errazak dira hazteko, eta basa-bizitzaren habitata hobetuko duzu horrela. Adituei galdetzea komeni da, edo bertako landareen mintegi batera jotzea, gure ingurunean hobekien hazten diren landareak zeintzuk diren eta nolako beharrak dituzten jakiteko.



BEHARREZKOAK EZ BADIRA, GAUEKO ARGIAK ITZALI:

Lurreko biziak, hainbat milurtekotan zehar, eguna eta gauaren zikloen arabera eboluzionatu du. Gaez erabiltzen ditugun argiek animalien egokitzapena oztopatzen dute; beren orientazioa, ugalketa eta gorteiatzeari eragin diezaiokete, eta landare nahiz loreen erneketari ere bai.



EZ ERABILI INTSEKTIZIDARIK:

Beren eraginkortasuna ez dago frogatuta, eta mesedegarriak diren intsektuak ere akabatzen dituzte. Eltxoek gogaitu ez gaitzaten, ur geldiaren iturri guztiak aurkitu eta ezabatzea da neurririk eraginkorrena.



PAPERA:



BAZTERTU ERABILI ETA BOTATZEAREN KULTURA:

Erabil itzazu, adibidez, telazko musuzapi eta ezpainzapiak paperezkoen ordez.



ERABILI PAPER BIZIKLATUA:

Erabil ezazu paper birziklatua, bi aldeetatik.



ARROPAK:



JANTZI ARROPA EKOLOGIKOAK ETA BIDEZKO MERKATARITZAKOAK:

Eros itzazu fabrikazio-prozesuan tratamendu kimikorik jasan ez duten lehengaiez egindako arropak, eta tindu kimikorik gehitu ez zaizkienak. Lehengai ekologikoen adibide batzuk kotoi ekologikoa edo banbuzko zuntzak dira. Gainera, bidezko merkataritzako dendetara joz gero, kalitate handieneko arropak eskuratuko dituzu eta arropa horiek egiten dituzten herrialdeen garapen iraunkorrari lagunduko diozu.

Keinu bat, mundu hobego bat. Denen artean, lor dezakegu.

“Ni Biodibertsitatea naiz” Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroaren ekimen bat da. Aipatutako zentroa Madariaga Dorretxean dago eta lhobek zuzentzen du, Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoak. Lhobe, berriz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren menpe dago. Eusko Jaurlaritzaren egitasmo eta ildoekin bat etorritik, eta garapen iraunkorraren irizpideei jarraiki, lhobek helburu hau du: Euskal Autonomia Erkidegoko eragile guztiak ekintzara bultzatzea, eta ingurumenaren eta pertsonen bizi-kalitatearen etengabeko hobekuntza lortzeko esku hartzea.

www.torremadariaga.org

www.ihobe.net





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA



Madariaga Dorretxea

Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroa

 ihobe

EUSKADIKO BIODIBERTSITATEAREN ZENTROA - MADARIAGA DORRETXEA

Web: www.torremadariaga.org Email: info@torremadariaga.org

Gernikatik Bermeora errepidea. San Bartolome auzoa 48350 Busturia (Bizkaia) Tel.: 946 870 402